



TUTORETZA PLANA



ARTXANDAPE IKASTOLA	
TUTORETZA PLANA	

SARRERA

Ikastetxearen heziketa-proiektuaren barruan, tutoretza-plana da ikasleen eskolatzeko-aldi osoan orientazio eta jarraipen ekintza guztiak antolatzeko egitura. Oinarrizko gaitasunak lortzea da orientazio eta jarraipen ekintza horien helburua. Ikasleei bere proiektu pertsonalaren eta profesionalaren jabe izan daitezen trebatzeko gaitasunak eskuratzen laguntzea da helburua.

Orientazio edukiek eskolako curriculum guztian dute eragina, eta zeharka garatu behar dira, alor guztietan. Hala ere, ikasketa horien zati bat esplizituki landu beharko da tutoretzan, hazkuntza pertsonalerako garrantzia duelako, ondorengo ikasketetan eragina duelako, eta bizitzako hainbat egoeratan erabili daitekeelako. Guzti hau barne hartuko duen Tutoretzaz gain, Ikasketa Kooperatiboaren metodologia erabiliko da, Inteligentzia Emozionalaren ikuspuntu batetik landuko da egunerokotasuna, eta bizikidetzako giro egokia baimentzen duten baldintzak ziurtatuko dira.

Tutoretza Plana, tutore bakoitzari dagokio garatzea, irakasle-taldearekin elkarlanean eta talde-gelan eragina duten beste eragile batzuekin koordinatuta. Hala eta guztiz ere, orientatzaile eta aholkulariaren laguntza izango du, ikasleen aniztasunari erantzuten laguntzeko eta erantzungo diola bermatzeko.

Marko honetan, taldean tutoretza-orduan garatu beharreko curriculumeko orientazio-edukiak antolatzen ditugu, tutorearen esku-hartzea finkatzen dugularik. Horrela, ikasleen banakako eta taldeko jarraipeneko hainbat eremutan, familiekin izan beharreko harremanetan, eta irakasleekin eta kanpoko beste eragile batzuekin dagoen koordinazioan laguntzen digu.

ARTXANDAPE IKASTOLA	
TUTORETZA PLANA	

Lau multzo nagusitan banatu daitezke jorratuko ditugun gaitasun, helburu eta edukiak:

1. Garapen pertsonala
2. Besteekiko harremanak
3. Orientazio akademiko-profesionala
4. Ikaskuntza-prozesuak

Bizitzan beharrezkoak diren gaitasun horiek eskuratzen laguntzeko ardura eskola inguruan, irakasle-talde osoarena da, baina, batez ere, tutorearena. Beraz, ikasketa-prozesuan eta bizitzaren garapenaren prozesuan ikasleari laguntzea da tutorearen zeregin nagusia. Oinarrizko gaitasun horiek lortzea da hezkuntza-helburua, eta helburu hori da prozesuaren gida.

GARATU BEHARREKO GAITASUNAK

Orientabideko edukiak eskola curriculum guztia barneratzen dute, eta arrazoi honengatik, ikasgai guztietan landu beharko dira.

Europako Parlamentuak funtsezko zenbait gaitasun ezarri zituen 2005ean, erreferentzia-esparru gisa. Oinarrizko Hezkuntzako Curriculum (Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen den curriculum) ezartzen duen Dekretuan honela zehaztuta daude gaitasun horiek:

- a) Gaitasuna kultura zientifikoan, teknologikoan eta osasun-kulturan
- b) Ikasten ikasteko gaitasuna
- c) Matematika-gaitasuna
- d) Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna
- e) Gaitasun digitala eta informazioaren trataerarako
- f) Gizarte- eta hiritar-gaitasuna
- g) Giza eta arte-kulturarako gaitasuna
- h) Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna

ARTXANDAPE IKASTOLA	
TUTORETZA PLANA	

Gaitasun horien eraikuntza diziplina arteko eraikuntzat hartu behar da, eraikuntza globalizatutzat. Aurretik esan dugun bezala, tutoretzak berriaz landuko ditu gaitasun horietako batzuk.

Hauek nabarmentzen ditugu:

- **Ikasten ikasteko gaitasuna:** ikasten hasteko eta gero eta eraginkorrago eta autonomoago ikasten jarraitzeko trebetasuna da, bakoitzaren helburuak eta beharrak kontuan hartuta. Norberak dakienaz eta ikasi behar duenez jabetzea esan nahi du, ikasteko erak eta erabiltzen dituen baliabide eta estrategiak zein diren ohartzea. Bakoitzak bere ikasketa antolatu eta denbora eta informazioa kudeatu behar du. Ikasten ikasteko, norbere esperientziak aprobetxatzen jakin behar da funtsean, eta jarrera kritikoa hartu behar da, arazoak hautemateko eta konpontzeko moduaren arabera. Bakoitzak bere portaera aztertzeko, arazoen iturriak identifikatzeko eta behaketak aktiboki aprobetxatzen jakiteko gai izan behar du.
- **Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna** sormenarekin, berrikuntzarekin, arriskuak hartzearekin eta proiektuen plangintza egiteko eta kudeatzeko trebetasunarekin lotuta dago. Ekintzaile izaten ikasteko gaitasunak irudikatzeko, gauzei ekiteko eta banakako edo taldeko ekintzak edo proiektuak sormenez, konfiantzaz eta arduraz garatzeko eta ebaluatzeko gai izatea eskatzen du, jarrera kritikoz, alde batetik norbere buruarekin, hobetzen joateko, eta testuinguruarekin, testuingurua ere hobetzeko. Egoerak aztertzeko, aukerak baloratzeko eta egokiena aukeratzeko ahalmena eskatzen du, egindako aukerarekin lan egiteko eta jarritako helburua lortzeko.

ARTXANDAPE IKASTOLA	
TUTORETZA PLANA	

- Pertsona eta kultura arteko gaitasunek eta gizarte- eta hiritar-gaitasunek mota guztietako portaerak dituzte barruan. Gizarte-bizitzan eta bizitza profesionalean eraginkortasunez eta modu eraikitzaile batean parte hartzeko prestatzen dituzte ikasleak, batez ere, gero eta aniztasun handiagoa duten gizarteetan. Gatazkak gainditzeko eta/edo egoera arazotsuei aurre egiteko ere balio dute. **Gizarte eta hiritar-gaitasunaren** garapenaren gakoetako bat, elkarrekin bizitzen ikasteko erreferentzia-ardatzari lotuta dago, eta interes orokorreko egoerak sortzea da gako hori. Lankidetzak, gizarte-gaiei edo gai akademikoei buruzko eztabaida edo kritika eta elkarbizitza-arauak eskatzen dituzte egoera horiek. Gelako kide guztiak aktiboki integratzea, eskolan dauden desberdintasunak onartzea eta taldean ikasle berriak sartzea gaitasun hori garatzen lagunduko duten gertaerak dira.
Tutoretzak berariaz lan egiten du gaitasun horiek garatzeko, eta, horrez gain, alor guztietako hezkuntza-gaitasun komunak koordinatzeko, dinamizatzeko eta sinergiak sortzeko ardura du, hezkuntza-komunitateko eragile guztiekin elkarlanean arituta.
- Honekin lotuta, **Komunikazio gaitasuna** aipatzea ezinbestekotzat hartzen dugu. Ez bakarrik, lehen aipatu dugun Ikasketa Kooperatiboko metodologiarako beharrezkoa delako, baizik eta Artxandape Ikastolan, sortu nahiko genituzkeen ikasleen ardatzetako batzuen oinarri izango zatekeelako (2014-2017 ardatz estrategikoetan egiten diren aipamenetan ondorioztatu daitekeen bezalaxe).

ARTXANDAPE IKASTOLA	
TUTORETZA PLANA	

Hortaz, orientabideko edukiak tutoretza orduetan lantzea, arrazoi desberdinengatik egitea planteatzen da, eta helburu batzuk lortu ahal izateko. Hiru arrazoi nagusi etortzen zaizkigu gogora: haste pertsonalean daukaten eraginagatik, ondorengoko ikasketetan daukaten eraginagatik eta bizitzaren egoera desberdinetan duten aplikazioagatik.

Oinarrizko gaitasuntzat hartzen dira Oinarrizko Hezkuntzan ikasten ari den edozein ikaslek eskuratu behar dituen ezagutza, trebetasun, jarrera eta balioen konbinazioa eta hauek dira, Artxandape Ikastolako Tutoretza Planean txertatzen ditugunak. Konbinazio hori guztia testuingurura egokituta dago, eta ikasleek, behar izateaz gain, ezinbestean eskuratu behar dituzte, garapen pertsonala izateko, hiritar aktibo bihurtzeko eta gizarteratzeko.

Lehenago adierazi dugunez, Oinarrizko Hezkuntzako curriculumak oinarrizko gaitasun batzuk ditu barruan. Gaitasun horiek, zenbait irakasgai eta ezagutzaren hainbat alorren bidez eraikitzen dira, bai eta eskolako testuinguruetan eta eskolaz kanpokoetan gertatzen diren mota guztietako esperientzien bitartez ere.

ARTXANDAPE IKASTOLA	
TUTORETZA PLANA	

Tutoretzaren oinarritzat hartzen ditugu beraz, Oinarrizko Hezkuntzaren amaierarako garatu beharreko kapazitate hauek:

- a) Nork bere buruaren ezagutza aztertzea eta errealitate sozio laboralari buruz autonomiaz hausnartzea, bere etorkizuneko proiektu pertsonala bere ahalmenen eta balioen arabera zehaztu ahal izan dezan.
- b) Norberaren esperientziak aztertzea eta egiaztatzea eta bere inguruko pertsona garrantzitsuak baloratzea, bere buruaren irudi positiboa, bere buruarekiko konfiantza eta eraginkortasuna lortzeko.
- c) Bizitzako esperientziak eta bere nahiz gizarteko gatazka-egoerak irizpidez aztertzea; horrez gain, hainbat aukera baloratzea, elkarrizketa oinarri hartuta erabaki arduratsuak hartzeko, besteekin eraikitzeko eta bere balioekin eta pentsaerarekin koherentea izateko.
- d) Ikasgelako eta ikastetxeko bizitzan gogo biziz parte hartzea, eta elkarbizitza-arauak errespetatzeaz gain, bertako funtzionamenduekin lotutako ekintzetan eta erabakietan inplikatzeko; horrela, herritar arduratsu, adeitsu eta kritiko gisa jokatu du.
- e) Jarrera irekia mantenduz, eskola-jarduerak gauzatzeko moduari eta egindako ahaleginari buruz hausnartzea; horrela, bere eskola-errendimendua ebaluatu eta beharrezko dituen hobekuntzak sartuko ditu, eta horrez gain, ondo egindako lana baloratuko du.
- f) Inguruko pertsonekin elkarlanean ikuspegi sortzailez aritzea, eta beste pertsonen bidez bere pentsamendua eraikitzeko, ideiak eta esperientziak partekatzeko, taldean lan egiteko eta komunikazio-sareak ezartzeko duen beharra baloratzea.
- g) Bidegabekeria edo indarkeria egoerekiko kritiko agertzea eta aniztasuna onartzea eta errespetatzea; horrela, kultura arteko gizarte honetan, bere portaera bat etorriko da justizia, berdintasun, bake eta elkartasun balioekin.

ARTXANDAPE IKASTOLA	
TUTORETZA PLANA	

TUTORETZA PLANAK BERE BAITAN HARTZEN DITUEN EREMUAK

Tutorearen zeregina da ikasle bakoitzaren eta talde osoaren ikasketa eta heldutasun-prozesuari jarraipena eta laguntza ematea. Bada, funtsezko zeregin hori lortzeko, ekintza desberdinak gauzatzen ditu ikasleekin, familiekin eta kanpoko zerbitzuekin.

Tutorearen zeregin hori hurrengo jarduera-eremuetan gauzatzen da:

1. eremua: Zuzenean ikasleekin garatu beharreko ekintzak, taldean nahiz banaka.

Tutorea da ikasle bakoitzari egin beharreko jarraipen osoaren arduraduna. Modu horretara, tutoreak laguntza eskaini behar du, ikasle bakoitzak bere proiektu pertsonala eraiki dezan eta ikasle bakoitza lagun-taldean ondo integra dadin.

Eremu horren barruan sartzen dira taldean gauzatutako ekintzak, esate baterako, tutoretzak eta ebaluazio-batzarrak, eta banaka gauzatutako ekintzak, hala nola, elkarrizketak egitea, gatazketan bitartekari moduan jardutea, informazioa eskuratzeko eta erabakiak hartzeko laguntza ematea.

Eremu horretan berebiziko garrantzia dute tutoretza-saioek.

Tutoretza-taldeko saioen helburua oinarritzko zehar-konpetentziak garatzea da. Tutoretza da ikasten eta pentsatzen konpetentziak, elkarrekin bizitzen ikasteko konpetentziak, ekimena eta ekintzailetasuna izateko konpetentziak eta norbera izaten ikasteko konpetentziak garatzeko eremu egokia.

ARTXANDAPE IKASTOLA	
TUTORETZA PLANA	

Tutoretza-taldeko saioen edukia lau gai-blokeren arabera antolatuko da: garapen pertsonala, besteekiko harremanak, orientazio akademiko-profesionala eta ikaskuntza-prozesuak.

Tutoreak ikasle bakoitzari eskaini beharreko arreta pertsonalaren garrantzia dela eta, Artxandape Ikastolan, DBHko talde bakoitzak bi tutore ditu. Bada, tutore bakoitzak duen ikasle-kopurua murriztuta, hobetu egiten da ikasleei nahiz familiei eskainitako arreta. Arreta pertsonal horren beste adibide bat, Portfolioaren erabilera da.

2. eremua: irakasle bakoitzarekin eta gelako beste irakasle guztiekin batera gauzatu beharreko ekintzak

Tutorea da irakasle-taldea koordinatzen duena.

Eremu horren barruan daude irakasle bakoitzarekin gauzatu beharreko ekintzak, esaterako, ikasleei buruzko elkarrizketak egitea, bai eta gelako irakasle guztiekin gauzatu beharreko talde-ekintzak ere, hala nola, bilerak koordinatzea eta ebaluazio-saioak koordinatzea edota, orientabidearekin koordinatzea beharrezkoa denean.

3. eremua: Ikasleen familiekin eta/edo legezko arduradunekin eta beste gizarte-eragile batzuekin gauzatutako ekintzak.

Funtsezko eremua da, ikasleei laguntza eta jarraipen egokia emateko.

Ezinbestekoa da tutoreak hezkuntza prozesuaren berri ematea gurasoei eta/edo legezko tutoreei, bai eta aholkuak ematea ere, adibidez, ikasketak eta portaera arazoei eta ikasketak antolatzeari dagokienez. Gainera, familiak eman dezakeen informazioa jaso, eta beraien parte hartzea bultzatu behar du.

ARTXANDAPE IKASTOLA	
TUTORETZA PLANA	

Aurrerago esan bezala, DBHko talde bakoitzak bi tutore dituenek, tutoreek denbora gehiago dute famili zein beste gizarte-eragileekin elkarriketatzeko.

HELBURUAK ETA EDUKIAK

Gure helburu orokorra hurrengoa da:

Ikasleei oinarrizko gaitasunak eskuratzen laguntzea, euren proiektu pertsonalaren eta profesionalaren jabe izan daitezen.

Helburu hori lortzeko hurrengo multzoak landuko dira:

1. Garapen pertsonala

Hazkuntza pertsonalarekin, arazoei aurre egiteko ahalmena hobetzearekin, erabakiak hartzearekin eta bizitzan zehar proiektu pertsonala egitearekin lotutako edukiak sartzen dira multzo honetan.

2. Besteekiko harremanak (komunikazioa, talde-lana eta gatazken Konponketa)

Giza taldeen funtzionamenduarekin, elkarbizitza-arauekin eta gatazken azterketa eta konponketarekin lotutako kontzeptuak, prozedurak eta jarrerak daude jasota multzo honetan.

3. Orientazio akademiko-profesionala

Eskolatze-prozesuak aurrera egiten duen heinean, ikasleak bere ikaskuntza ibilbidearekiko

eta lanbide-etorkizunarekiko hartutako erabakiek gero eta garrantzi handiagoa izango dute; erabaki horiek hartzeko, hain zuzen, nork bere buruaz eta lan-munduaz duen ezagutza hartuko da oinarri.

4. Ikaskuntza-prozesuak

Oro har, eskola-errendimendua, agenda-erabilera, lankidetzeta-taldeak, ikasketa-tekniken aplikazioa eta metakognizio estrategiak optimizatzen dituzten gaitasunekin lotutako edukiak dira.

ARTXANDAPE IKASTOLA	
TUTORETZA PLANA	

Helburuen eta edukien banaketa:

Multzoa	Helburuak	Edukiak
1- Garapen pertsonala	<p>Banakakoaren zein gizartearen dimentsioan giza izaera aintzat hartzea, eta norberaren nortasuna onartzea, bai eta gainerako pertsonena ere, hari dagokion dimentsio pribatua eta guzti, banakakoen desberdintasunak eta pribatutasun-eremua errespetatzeko eta auto-estimua hobetzeko.</p> <p>Sentimenduak eta emozioak garatzea eta adieraztea, eta gizarte-komunikaziorako trebetasunak garatzea, gatazkak lantzean elkarrizketa eta bitartekotza erabiliz taldeko jardueretan parte-hartze solidarioa eta tolerantia errazteko.</p>	<p>- Auto-estimua eta autokontzeptua: Norberaren eta besteen itxaropenak. Eragiten duten aldagaiak. Auto-ezagutza.</p> <p>- Sentimenduak eta emozioak Nork bere buruarekin eta gainerakoekin lotutako sentimenduak identifikatzea eta erabiltzea. Autorregulazioa eta erregulazioa.</p> <p>- Genero-nortasuna Zereginak. Norberaren irudia. Sexuaren eta generoaren araberako sistemak.</p> <p>- Gizarte-trebetasunak Gizarte-trebetasunak garatzea (ni eta besteak). Gizarte-elkarrekintza. Sentimenduak eta emozioak identifikatu eta adieraztea.</p> <p>- Ahalmenak sustatzea: Adimen-motak. Motibazioa. Ahalegina eta errendimendua.</p> <p>- Giza eskubideak Homogeneotasun- eta aniztasun-ideiak. Kulturartekotasuna: identitatea, kultura-aniztasuna, arrazismoa.</p>

ARTXANDAPE IKASTOLA	
TUTORETZA PLANA	

<p>2.- Besteekiko harremanak (komunikazioa, talde-lana eta gatazken Konponketa)</p>	<p>Berdinen arteko jardueretan parte hartzea, eta errespetuan, lankidetzan eta indarkeria baztertzearaino oinarritutako talde-proiektuak antolatzea bizikidetzan eta parte-hartzean sustatzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Taldea Liderra eta lidergoa. Taldekako zereginak, taldea eta taldekatzea Partaidetza-sentimendua. Elkar ezagutzeko, lasaitzeko eta konfiantza hartzeko jolasak. Komunikazio- eta adierazpen-jolasak. - Besteekiko harremanak Elkarbizitza-arauak. Eskola-antolaketa eta -funtzionamendua: Arduraduna edo ordezkaria aukeratzea. Ikasgelako arauak demokratikoki erabakitzea. Elkarrizketa. Hizketaldiak: gainerako pertsonak entzutea hitz egiteko txanda errespetatzea. Berdinen arteko harremanak: taldearen soziograma. - Gatazkak Gatazkaren aurreko estiloak: lankidetzan, lehia, ukapena, eraso, pasibotasuna. Gatazkaren bilakaera. Gatazkak positiboki konpontzea: bitartekaritza, negoziazioa, gelako batzarra. - Gizarte-trebetasunak Komunikazio-trebetasunak: Adierazpenezkoak, pasiboak, oldarkorrak. Aurkezpenak. Elkarrizketak. Gizarte-jokabidearen motak. Enpatia.
<p>3- Orientazio akademiko-profesionala</p>	<p>Xedeak eta helburuak. Prestakuntza-ibilbidea. Prestakuntza arautua eta arautu gabea. Lana eta enplegua. Lan-merkatua.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lanbide-etorkizunari buruzko informazioa hautatzea Hainbat iturri erabiliz, informazioa bilatzea Informazioa antolatzea eta sailkatzea. Gordetako informazioa eguneratzea. Lortutako informazioaren garrantzia baloratzea. - Erabakiak hartzea Hartu beharreko erabakia identifikatzea eta 	

		<p>zehaztea.</p> <p>Pertsonarentzako eta lortu nahi denerako garrantzitsua dena ezagutzea.</p> <p>Daukagun informazioa berrikustea eta informazio berria bilatzea.</p> <p>Hautabide bakoitza aukeratzeak dituen arriskuak eta abantailak baloratzea.</p> <p>Ezarrirako helburua lortzeko ekintza-plana egitea.</p> <p>Erabakia eta emaitza bereiztea eta baloratzea.</p>
4.- Ikaskuntza-prozesuak		<p>- Kontzeptu-mapak:</p> <p>Kontzeptu nagusia identifikatzea.</p> <p>Gaiari buruzko funtsezko kontzeptuak edo hitzak ateratzea.</p> <p>Kontzeptuen arteko loturak egitea.</p> <p>Kontzeptuak taldekatzea.</p> <p>Kontzeptu-taldeak hierarkizatzea.</p> <p>Kontzeptuak grafikoki adieraztea eta horien arteko loturak ezartzea.</p> <p>- Eskemak</p> <p>Informazio-edukiaren ideia orokorrera hurbiltzea.</p> <p>Testu-antolaketa eta ideien hierarkia ikustea. Atalak eta azpiatalak bereiztea.</p> <p>Testuaren ideia nagusia idaztea.</p> <p>Xehetasunetara iristea.</p> <p>Ideiak logikoki antolatzea eta banatzea.</p> <p>Ideiak grafikoki antolatzea.</p> <p>- Laburpenak</p> <p>Testua ulertzea.</p> <p>Oharrak idaztea eta funtsezko ideiak jasotzea.</p> <p>Idea nagusiak eta bigarren mailako ideiak bereiztea.</p> <p>Hitz garrantzitsuenak elkarlotuz esaldiak osatzea eta, bertan, testuaren esanahia kontuan hartzea.</p> <p>Ardatz nagusia aurkitzea, testua antolatzea eta ideiak lotzea.</p> <p>Narrazio-estiloan idaztea eta testuari esanahia eta jarraipena ematea.</p> <p>- Ikaste jarduerak antolatu eta planifikatzea.</p> <p>- Ikasteko erak eta estrategiak.</p> <p>- Proiektuen bidezko ikaskuntza.</p> <p>- Lan kooperatiboen bidezko ikaskuntza.</p>

ARTXANDAPE IKASTOLA	
TUTORETZA PLANA	

TUTORETZA PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Ikasturtean, maila bakoitzeko tutore-taldeak tutoretza-planaren garapenaren jarraipena egingo du.

Ikasturtea amaitzean, tutoretza-planaren ebaluazioa egingo da, eta baita planaren garapenari buruzko amaierako memoria ere. Memorian idatziko dute tutoreek, ikasleek eta lankide diren beste eragileek egindako behaketen laburpena, ondo atera diren alderdiak, sortutako zailtasunak eta aldatu beharko diren alderdiak.

Ebaluaziotik ateratzen dituzten ondorioak kontuan hartuko dira hurrengo ikasturtean egin beharreko aldaketak eta egokitzapenak egiteko.

Tutoretza-planaren ebaluazioa egiteko, irizpide hauek erabiliko dira:

- Ikasleek zer gaitasun-maila eskuratu duten, ezarritako ebaluazio irizpideen arabera.
- Edukien garrantzia
- Jardueren egokitasuna gaitasunak eskuratzeko
- Hiru jarduera-eremuetan aurrera eramandako ekintzen egokitasuna
- Ikasle-taldearen eta familien parte hartzea